

ERABAKIA, 2016ko APIRILAREN 15ekoa, UPV/EHUko GERENTEARENA. HONEN BIDEZ HAUTAPEN PROZESU BATERAKO DEIA EGITEN DA "SGIkerreko TEKNIKARIAK" LAN POLTSAK SORTU ETA HANDITZEKO, ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ALDI BATERAKO PREMIAK BETETZEKO

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak pertsonen zerrenda bat eduki behar du prest AZPko langileen zereginetan aritzeko, bai lanpostuen zerrendan dauden plantillako langileak ordezkatzeko –edo hutsik geldi daitezkeen lanpostuak betetzeko, lanpostuok arauz bete arte– bai aldi baterako premiei erantzuteko.

Aldi baterako lana kudeatu eta antolatzeko orduan, funtsezko elementua da lan poltsak sortu eta kudeatzeari buruzko 2010eko martxoaren 26ko akordioa (EHAA, 107. zk., 2010eko ekainaren 8a).

Akordio horren aplikazioan, administrazioak berritu egin behar ditu egungo lan poltsetako kideen zerrendak, hautagai kopurua egokia edo nahikoa ez denean aurreikus daitezkeen beharrei erantzuteko, edo, kopurua nahikoa izanik, pertsona horiek behar diren baldintzak betetzen ez dituztenean. Horretarako, aldi baterako hautapen deialdiak egingo ditu.

Gaur egun, agortuta daude ondoren aipatzen diren espezialitateetako "Ikerketako Zerbitzu Nagusietako goi mailako teknikariak" kategoriaren Lan Poltsak: Neurri magnetikoak; Materialen eta gainazalen mikroskopia; X izpiak: molekulak eta materialak; Analisia (Analisi Zerbitzu Nagusia); Erresonantzia Magnetikoa; eta Animaliategia.

Gainera, hiru poltsa berri sortu behar dira UPV/EHUk arlo hauetan dituen beharrei erantzuteko, dagozkion espezialitateak sortuz eta sartuz administrazio eta zerbitzuetako langile kontratudunen hitzarmen kolektiboan, Gobernu Kontseiluaren erabakiz (EHAA, 2016ko urtarrilaren 4a). Bestetik, poltsak egokitu egin behar dira hitzarmen horretako kategoria profesional eta espezialitateetara.

Beraz, Gerentzia honek, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteari eta eskumenak eskuordetzeari buruzko 2013ko urtarrilaren 30eko errektorearen erabakiak ematen dizkion eskumenak erabilita (EHAA, 2013ko otsailaren 13a),

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Hautapen prozesu bat deitzea ondoren aipatzen diren "SGIkerreko teknikariak" lan poltsak handitzeko eta hiru poltsa berri sortzeko, erabaki honen Eranskinetan jasota dauden deialdiko Oinarrien arabera.

Hautatutako pertsonak hiru campusetatik edozeinetan lan egin ahal izango dute.

Handitu beharreko lan poltsak:

- Neurri Magnetikoak
- Materialen eta gainazalen mikroskopia
- X izpiak
- Analisia
- Osasun Arloa /Animaliategia
- Erresonantzia Magnetiko Nuklearra
- Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handiko Mikroskopia Biomedikuntzan

Lan poltsa berriak:

- Raman-Multiespektroskopia akoplatuak
- Fotoelektroien espektroskopia (XPS)
- 3. babes maila biologikoa

Bigarrena.- Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke Gerentzia honen aurrean, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean. Epe horiek argitalpen egunetik kontatzen hasita zenbatuko dira.

Leioa, 2016ko apirilaren 15a

Miren Lorea Bilbao Artetxe
UPV/EHUko gerentea

